

NARRATIBA

Iparrorrazaren bila

MOTOA

Juan Kruz Igerabide.
Alberdania, 2012.
13,20 euro, 104 orrialde.


Xabier ETXANIZ

Igor gazte nerabe baten istorioa kontatzen digu hain izenburu adierazgarria duen Igerabideren gazte literaturako lan honek. Igorren bizitza oso gorabeheratsua dugu, gurasoak banatuak (ama beste maitale batekin joana, hobe esanda), arrebak nagusiak amarena egiten, lagun berriak egin nahian... eta nerabezaroa den egoera zalantzakor, aldakor, bizi eta norabide argirik gabeko horretan Igor mundu berri bat deskubritzen hasiko da Irene ederrak liluratuta.

Zitzu bizian joan ohi da Igor motoan, eta horrela doaz orriak irakurlearen aurrean; hasieran oso gauza gutxi gertatzen direla dirudi, idazlea irakurlea testuinguruan kokatzen ari baita, Igorren munduan barnera-

tzen; baina gero, Irene agertzean Igorren bizitza emaniko aldaketan lekuko izango gara. Bera baino urte batzuk helduago den neska salbatzen du, eta poliki-poliki neskaren sarean geratzen da harrapatu-rik; gauetan irten, drogaren mundua ezagutu; Ireneren kuadrillakoe-kin hasi, nahiz eta gustukoak ez izan... eta birtarte horretan Igorren ondoan, etengabe, aholkuak eta iritziak emanez, bere benetako laguna, Tripazorro.

Gorabeheratsua da gazteen bizimodua, eta are gehiago Igorrena; arrebak, "nana" deitzen dion arrebak horrek, ez du laguntzen; aita ere oso urrutentitzen du... lagun berriak erakargarriago-



ak zaizkio, nahiz eta ez konbentzitu. Eta horrek guztiak ezinegona areagotzen du Igorren baitan, etsipena, itxaropena edo amorrua bezalako sentimenduak plazaratuz, "Zergatik alde egin zenuen, ama!" kalearen erdian botatzen duenean bezala.

Igerabidek familiaren inguruan, lagun taldeak edo harremanak eta protagonistaren barne borrokak oinarri hartuta eraiki du nobela hau, gaztaroaren egoera batzuk oso muturrera eramanez, satira edo kari-

katura puntua ere izanik -izenen erabilera ere-. Baina, "Motoa" hau, batez ere gustura irakurtzen den nobela bizi eta entretenigarria dugu.

SOLASALDIAK

Jaio, Antza eta Urretabizkaiaren lanei buruz arituko dira hainbat herritan

Karmele Jaioren "Zu bezain ahul" ipuin liburuari buruz arituko dira gaur Donostiako Lugaritz kultur etxean, 17.00etatik aurrera. Asteartean Andoaingo liburutegian 19.00etan egingo duten solasaldian, ordea, bere azken lana, "Ez naiz ni", izango da mintzagai. Azken horren inguruan egingo dute berba ere Eako Hea elkartearen hilaren 15ean, iluntzean. Era berean, Zumaiako Foronda kultur etxean Mikel Antzaren "Atzerri" nobelari buruzko mahai ingurua egingo dute 18.00etan, eta, Iruñean, berriz, Zaldiko Maldiko elkartearen Arantxa Urretabizkaiaren "3 Mariak" izango dute ardatz ostiralean.

Haurrek Gasteizko katedrala gertutik ezagutu ahal izango dute Katu pertsonaiari esker

GARA | GASTEIZ

Gasteizko Santa Maria katedralari buruzko gakoak ematen dituen liburua argitaratu dute euskaraz eta gaztelaniaz. "Katu bazen behin... Gasteizen" lanak haurrei tenpluak gordetzen dituen sekretuak ezagutzen lagun-zeke helburua du.

Katu katedralaren bizi da, bere familiako belaunaldi asko bezalaxe, eta bere abenturei esker tenpluaren historia, eraikitze lanak, arazoak eta zaharberritzea gertu-gertutik ezagutu ditu. Horregatik, haurrei erakutsiko die XVIII. mendeko gasteiztarrak nola bizi ziren, Erdi Aroan zein defentsa sistema erabiltzen zi-

tuzten edota zein balio artistiko-arkitektoniko dituen eraikinak gaur egun.

Ainhoa Gomez irakasleak idatzitako liburu sail baten lehenengo dugu "Katu bazen behin... Gasteizen". Kontakizunaz gain, Ismael Garcia Historian doktoreak egindako marrazkiak ere baditu liburuak. Bi egileek harreman estua dute katedralarekin, bertako proiektuetan parte hartu baitute azken urteetan eta oso ondo ezagutzen baitute zaharberritze prozesua.

Liburua Bisitariak Hartzeko Zentroan dago salgai, 18 euroan. Hori bai, nahi duenak dohainik eskura dezake formatu digitalean www.catedralvitoria.com atarian.

Una exposición recorre la literatura policiaca en Londres

GARA | LONDRES

La Biblioteca Británica acoge una exposición que recorre la historia de la literatura policiaca. "Asesinato en la biblioteca: de la A a la Z en la ficción de detectives" es un homenaje a este género literario que gozó de gran éxito en los largos viajes en tren en la Gran Bretaña del siglo XIX.

«Con el uso popular del ferrocarril las novelas de misterio se

popularizaron y llegaron al gran público, que necesitaba entretenerse con algo», explicó Kathryn Johnson, la comisaria de la exposición.

Así, en la letra A nos encontramos con Agatha Christy, creadora del detective belga Hércules Poirot. A partir de ahí se nos presentan un sin fin de tópicos policiacos como la lupa, la institutriz misteriosa, el Orient Express o, cómo no, el «elemental, mi querido Watson».

DANTZA DANZA

TEATRO ARRIAGA ANTZOKIA

BALLET DEL TEATRO NACIONAL DE WIESBADEN

El secreto de Barba Azul

Ballet de Stephan Thoss

Musika Música Henryk Górecki, Philip Glass

Koreografia dekoratuak etajantziak Coreografía, decorado y vestuario Stephan Thoss



Foto: Martin Kaufhold

martxoa
15, 16 marzo



Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO



bbk

Jarrai gaitzazu:
Siguenos en:



www.teatroarriaga.com



